

Barazkien jatorria II

Barazkien dibertsitatea dugu baratzezaintza ekologikoaren irizpide nagusienetako bat. Horrexegatik tomate edo patata bezain zabaldua ez dauden beste barazki batzuen jatorria eta historia azaldu nahi dugu gaur.

Sirian eta Egipton du bere jatorria **borrajak**, nahiz eta mediterraneo eskualdean oso hedatua egon. Gurea bezalako ingurune heze eta emankorretan, oso erraz ugaltzen den landarea da eta oso azkar bereizten da dituen lore urdin eta zuri ikusgarriengatik.

Nahiz eta bere laborantza gure baratzeko errazena eta azkarrena izan, errefraua ere ez da oso hedatutako barazkia. Errefauaren sorterrria Txina da eta badirudi egiptoarrek eta babiloniarrek duela 4000 urte inguru erabiltzen zutela. Txinan eta Korean K.a 400 urte inguruan erabiltzen hasi zirela uste da. Hala ere, Europan zehar bere kontsumoa sustatu zutenak erromatarrak eta greziarrak izan ziren.

Nahiz eta gaur egun gure inguruan oso ezaguna eta preziatua den **alberjinia**, duela urte batzuk hasi zen gure plateretan azaltzen. Jatorri indiarra du. Badirudi merkatari arabiarrek sartu zutela Europan Erdi Aroan. Hala ere, gaixotasunak eragiten zituela uste zutenenez, urteetan ez zen bere kontsumoa hedatu (jangarriak ez ziren barietateak erabili zirelako izan daiteke) eta apaingarri gisa erabiltzen zen soilik.

Origen de las hortalizas II

Ya que la diversidad en la huerta es una de las premisas de la horticultura ecológica., vamos a conocer el origen e historia de hortalizas un poco menos populares que el tomate o la patata.

La **borraja** es un cultivo originario de Siria y Egipto, aunque está naturalizada en toda la zona mediterránea. Es una planta que se reproduce muy fácilmente en zonas como la nuestra, húmedas y fértiles y que se distingue muy fácilmente por las flores tan vistosas que tienen, que van del azul al blanco.

Aunque el **rábano** no es una hortaliza muy extendida en nuestra zona, su cultivo es uno de los más fáciles y rápidos de nuestra huerta. El origen de los rábanos se sitúa en China, aunque parece que fueron los egipcios y los babilonios los que empezaron a utilizarlo hace alrededor de 4.000 años. En China y Corea se considera que empezó a consumirse hacia el año 400 a.C.. Aun así fueron los griegos y los romanos los que impulsaron su consumo por toda Europa.

En cuanto a la **berenjena**, aunque actualmente sea una planta muy conocida y apreciada en nuestro entorno, no hace tantos años que lleva con nosotros. De origen indio, fueron los comerciantes árabes, aparentemente, los que introdujeron la hortaliza en Europa, en la edad media. Aun así, durante años no se extendió su consumo, ya que se creía que provocaba enfermedades (probablemente porque se utilizaron variedades no comestibles) y su uso era meramente decorativo.